

GIG 03

SATURRARANGO KONGLOMERATUAK

BALIO INTRINTSEKOA: **3,5**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,13**KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Saturrarango konglomeratuak Ondarroa formazioko elementu garrantzitsuak dira. Formazio hori konglomeratu silizeoz, hareharriz eta lutita grisez osatuta dago, eta horiek ia bertikalki azaleratuta daude Saturraranen, tamaina metrikoko estratutan. Arroka horiek 7 kilometro inguruko zabalerako arroila handi baten barruko zenbait higadura-kanal turbiditikoren betekina osatzen dute; arroila horrek Erdi Albiarrean funtzionatu zuen, eta sedimentu asko eta asko eraman zituen ipar-ekialdeko plataformetik ipar-mendebaldeko itsaso sakonetarantz.

Saturrarango azaloramendua, zehazki, 25 metro inguruko sakonerako higadura-kanal bati dagokio; aipatu beharrekoa da kanal horretan sekuentzia dekametrikokoak metatu zirela, eta pikorren lodiera eta tamaina gero eta txikiagoak direla segidan gora egin ahala. Horrek erakusten du kanalik handienak beste kanal txikiago batzuek zeharkatzen zituztela. Harri-koskorak jatorria Landetako mendigune kontinentalean (NE) duten arroka karboniferoz, triasikoz eta kretazeoz osatuta daude, eta hori bat dator estratuen oinarrian aurkitu diren eta hego-mendebalderanzko mugimenduak erakusten dituzten ur-lasterren markekin.

Arroilan zehar itsaso sakonerantz erortzen ziren ur-laster handi eta indartsuek higatu zituzten kanalak (50 m-ko sakonerakoak ere badira), eta gero, beste lur-jausi batzuen edo uhertasun-lasterren eraginez eroritako sedimentu lodiz bete ziren; hala, lasterrek energia galdu zuten pixkanaka, kanalak bete ahala.

NOLA BERTARATU

Azaloramendua Ondarroa eta Saturraran arteko oinezkoentzako itsas pasealekuan dago. Hara Saturrarango hondartzako aparkalekutik joan behar da. Azaloramendua pasealekuaren hasierako zubitik 80 metrora dago, gutxi gorabehera.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.



Saturrarango konglomeratuen azaloramenduaren ikuspegi orokorra.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):
X= 547661 m / Y= 4796600 m / Alt.= 9m



Ortokonglomeratuko harri-koskorak, gertutik ikusita.